

10 urtetik 16 urtetara bitarteko eskualdeko haur eta gazteak guztiak bertsoan

Bertsozale Elkarteko irakaslea, klasea ematera etorri da bi astez behin, Medialdea IPI ikastetxea eta Maeztu herri eskolara. 90 haur eta gaztek landu dute bertsolaritza aurten ere Urriari hasi eta Maiatzera bitartean. Lehen hezkuntzako 5 eta 6. mailan eta Bigarren hezkuntza osoan izan dugu GU ERE BERTSOTAN programa eta. Haur eta gazteek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte.

GU ERE BERTSOLARI programa "bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.

IKASTETXEAK

Kanpezu: Mendialdea IPI ikastetxea

Maeztu: Maeztu Herri eskola

GU ere bertsotan



Eta eskolaz kanpo ere guztientzako eskaintza

MENDIALDEKO bertso-eskola

HELDUEN taldea

XVII. Mendea kultur elkartean

Asteazkeneo 20:00etan

KANPEZUKO bertso-eskola

GAZTEEN TALDEA

Kanpezuko Kultur Etxean

ostegunetan 17:00etan (hamabostero)

HAURREN TALDEA:

8-12 urteko haurrak

Kanpezuko Kultur Etxean

asteazkeneo, 18:30-19:30



Eskualdeen arteko BERTSO erronka KANPEZUN

Mendialdeko bertso-eskolak 2009an sortu zenetik dinamismo ezin hobea eman dio eskualde osoari; bai bertsolaritzaik begiratuta bai euskararen erabilpenaren ikuspuntutik. Euskararen arnasmune izateaz gain, plazara, herrira eta herriz herri ateratzen du bere jarduna eta lehendabiziko aldiz aurten, bertso sorta kolektiboetan parte hartzeaz gain talde bezala bat-batean parte hartzeko ausardia eta grina izan ditu ARABAKO BERTSO KUADRILA ARTEKOAN

Otsailaren 20an, Kanpezun, Arabako Bertso Kuadrilla artekoaren 4. topaketa antolakuntzaren ardura bere gain hartu zuen bertako bertso-eskolak. Guztira 40 lagun aritu ziren, bat-bateko lau talde eta idatzizko bi talde, Lautada, Gasteiz eta Mendialdekoak.

Eguraldi ona lagun, egun osoko egitaraua prestatu zuten eguerditik hasita ilundu arte. Eguerdian herriko plazan idatzizko bi taldeek prestatutako bertso sorta idatziak kantatu zituzten. Jarraian, bertatik hasitako poteoan, tabernaz taberna aritu ziren 4 taldeen partaideak: koplaka, puntuka... Ibernalo aterpetxean bapo bazkaldu ostean, herriko plazan, bertsoa eta herri kirola uztartu zituzten. Hainbat proba egin zituzten taldeka: lokotx bilketa, txinga, sokatira, tronza eta eskiak bertso ariketa dibertigarriekin nahastuz.



2015/7/17	Fresnedo Kanpezu Bertso abordajea
2015/10/30	Kanpezu Ardo dastaketa: bertsolariak
2015/11/8	Kanpezu San Martin azoka. Bertso-saioa
2015/12/3	Kanpezu: esaera zaharrak eta bertsoak
2015/12/11	Bernedo Bertso-poteoa
2015/12/18	Urbisu Bertso-afaria
2015/12/30	Maeztu Bertso-pilota
2016/02/20	Kanpezu Arabako bertso kuadrila artekoa

Gure eskualdeko txoko askotara heldu da bertsoa azken urte hauetan, era askotako publikoak dastatu ahal izan du leku ezberdinetan egin diren formatu ezberdinetako emaldiak tarteko.

Bertsozaletasuna gure eskualdean leku propioa hartzen ari dira, jende askoren ahaleginari esker euskara esparruak berreskuratzen ari den bezala. Oraindik esparru asko izango dituzte aboratzeko, txoko asko probatzeko, jende berri asko ezagutzeko.

Mendialdeko Bertso eskolartekoa 2016

Maiatzaren 20an arratsaldeko 19:30ean izan zen mendialdeko bertso eskolartekoa. Maeztu herri eskolako eta Mendialdea ikastxeko 10 utetik 16 urtera bitarteko haur eta gazte guztiek hartu zuten parte. Gelan egindako taldekako bertso sortak izan ziren protagonista eta ikastalde bakoitzak bertso sorta hautatua kantatu eta hamaiketako ederra egiteko oparia jaso zuen bueltan.

Bi gai zituzten aukeran: "Herriko jaiak antolatzea egokitu zaizue" edo "Aurten uda etxetik kanpo pasako duzue".

Irudimenez eta umorez betetako bertso sortak entzun ziren oholza gainetik eta barre algarak ere bai tarteka.

Giro goxoa aprobetxatuz ikasle batzuk oinak emanda inprobisatzera igo ziren oholza gainera. Txalo ugari jaso zuten bueltan.

Amaiera DBHko 3. mailakoen "horrelakoak gara kanpezun" eta DBHko 4 mailako ikasleek habanera doinuan egindako agurrarekin eta publiko artean segidilla doinuan egindako saiotxoarekin amaitu zen jaialdia. .

Hurrengo urtean gehiago eta ahal bada hobeto



UDAKO
AUZOLAN
ARTISTIKOA
MENDIALDEAN

Sortearen bidez, etxerako egurra biltzen dugu auzolanean, basoak garbitu eta berritzen dira, etxea berotzen da, suaren inguruan biltzen gara eta geu ere berotu... Disko honetan beraz, modu batera edo bestera bildu nahi genituzke mendeetan zehar gurean hain ohikoak izan ditugun ekimenak eta bertsoekin uztartu.

Izan ere hainbat dira azken urteetan bertso eskolako kideok, Kanpezu edo Maeztuko ikasleok, nahiz euskara ikasten ari garen helduok han eta hemen abestu ditugunak, hala nola Euskararen Egunean, Ihauterietan, Ikastetxeetan, San Martin azokan... Inguruko musikari eta artista guztiak elkartu eta udaran zehar grabaketa lanak egin ondoren, udazkenerako esku artean izango dugu lan berri hau, bertso musikatuaren disko hau.

Guztiok gonbidaturik zaudete! Denon artean egina denon artean goza dezagun!



Mendialdeko bertso-eskola

**Kanpezuko kultur etxea
01110 KANPEZU**

**Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com**

www.bertsozale.eus/araba

www.bertsozale.eus

www.bertsoa.eus

